

INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA San (Izfe SA) “ARLOKO ARDURADUNA: IKT ZERBITZUAK” LANPOSTUA BETETZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- 1.FASEA, 2.FASEA ETA 3. FASEAREN (MERITUEN BALORAZIOA) BEHIN-BETIKO EMAITZA.
- BEHIN-BETIKO SAILKAPENA.

Alegazioak aurkezteko epea bukatu ondoren eta eskaerarik jaso ez denez, Hautaketa Batzordeak,

EBAZTEN DU

Lehenengo.- Arloko Arduraduna: IKT Zerbitzuak lanpostua hautatzeko prozesuaren 1.Fasea, 2. Fasea eta 3.Fasearen (Merituen Balorazioa) behin-betiko emaitza onartzea (1. ERANSKINA).

Bigarren.- Behin-betiko sailkapena argitaratzen da fase guztietan lortutako puntuazioen baturaren arabera (2.ERANSKINA).

Hirugarren.-Lanean hasteari buruzko informazioa gogorarazen da, oinarrietan aurreikusitakoaren arabera (ZORTZIGARREN OINARRIA) eta bereziki:

Hautatze prozesuak dituen fase guztietan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du behin betiko sailkapen ordena, baldin eta finkatutako irizpideen arabera gainditu badira fase horiek.

Aukeratutako hautagaiak osasun azterketa egin beharko du, hori nahitaezkoa eta baztertzaila baita. Ondoren, hala badagokio, plantillan sartuko da eta Elkartearen araudiaren arabera jardungo du.

Eskatutako dokumentazioa ez badu aurkezten edo osasun azterketa egokia ez bada, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu hautagaiak.

Sei hilabeteko probaldia izango du kontratatze proposatutako pertsonak. Hautagaiak ez badu probaldi hori gainditzen, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu.

Aukeratutako pertsona bati Izfe SAn hasteko deia egitean, aukeratutako pertsona horrek uko egin ahal izango dio eskaintza zehatz horri. Kasu horretan, ulertuko da uko egitea behin betikoa dela, eta horrenbestez, uko egiten diela Izfe SAn hasteko etorkizuneko deiei ere, deialdi honen xede esparruan.

Stua. Hautatze Batzordea
Donostian, 2020ko urriaren 29an

1. ERANSKINA:

Arloko Arduraduna: IKT Zerbitzuak hautatzeko prozesuaren 1.Fasea, 2.Fasea eta 3.Fasearen (Merituen Balorazioa) behin-betiko emaitza.

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.FASEA (gutxienez 15/30 puntu)	2.FASEA (gutxienez 37,5/50 puntu)	3. FASEA (MERITUEN BALORAZIOA) (gehienez 20 puntu)
29915 29966 30009 30025	21,50 EZ DU GUTXIENEO PUNTUAZIOA GAINDITZEN 19,83 18,87	41,25 --- EZ DU GUTXIENEO PUNTUAZIOA GAINDITZEN EZ DU GUTXIENEO PUNTUAZIOA GAINDITZEN	13,00 --- --- ---



2. ERANSKINA:

Arloko Arduraduna: IKT Zerbitzuak hautatzeko prozesuaren behin-betiko sailkapena.

IDENTIFIKAZIO KODEA	GUZTIZKO PUNTUAZIOA
29915	75,75